

GARTZIA ERDAL ITZA?

MANUEL LEKUONA

Nafarroa'ko Erregerik zaarrenetan GARZIA (GARTZIA) izeneko batzuek arkitzen ditugu. Gartzia erdal-itza al da? Sinista al diteke Nafarroa'ko Erregerik zaarrenak erderazko izena izatea?

Nolanai dala, *Garcia* izena ain dago zabaldua Gaztekerri guztian, edozeñek pentsa lezake, erderazko izen jatorra dala.

Ala al da?

Gure artean —euskaltzaleen artean— oso banatua dago, euskal-izena dalako iritzia. Eta itzari euskerazko etimolojia billatzen saioak egin ere egin dira. Eta saio oietan bat zera da: GARTZIAK “Azaria” esan nai duela. (Salbo-ta, Bizkai'ko Jaunen artean “Lopez”ek, latinezko “Lupus”en bidetik, “Otsoa” esan nai duan bezala, Nafarroa'n, Erregeen arteko “Gartzia” oiek, “Azaria” esan nai dutela).

Beste batzuek, *azariaren* bidetik ez baño, *artza'ren* bidetik saiatu dira, ots! (H)ARTZ(E)AREN bidetik (salbo-ta, Italia'ko “Ursino”ak bezela).

Guk gauza apur bat argitzeko konparamen batzuek egingo ditugu lenengo, berdinkatze batzuek.

BERTZEA, *BESTE*A dan bezela.

GARTZAIN bat, *GASTIAIN* da, eta

GARTZEIZ bat, *GAZTEIZ* (*Gartzeiz* edo *Garteiz*. eta

GARTZON bat, *GASTON* eta

GARTZE bat, *GASTE*

Bide orri jarraituaz, *GARTZIA* bat, *GASTIA* gertatzen da: *Gastia*, *G'rekin*, edo *Castia*, *C'rekin*.

GAST ortan, berriz, latinezko *CASTRUM'en* edo *CASTELLUM'en* zuztar-itx radikal *CAST* arkitzen bait degu, beti ere zerbait “militar” -gauza, guk *GUDA* ta *GUDARI* esango gendukeana...

Bide ortatik, naiko zuzen, konparamen ontara iristen gera:

GARTZIA'ren berdin *GUDARIA*.

Beraz, Bizkai'ko Jaunak OTSOAK ziran bezela, Nafarroa'ko Erregeak, izanez ezik izenez ere, GUDARIAK zirala. (Aien artean, ain zuzen, izan bait zan bat, erderazko izen-goitiaz “el Batallador” izendatzen zana: “ALFONSO EL BATALLADOR”)

Ausaz, “BERTZE ta BESTEren bide beretik dabil, arako “IÑIGO ARISTA”ren eta “IÑIGO ARITZ” hipotetikoaren konparamen parejarena. Kronikaetan datorren “IÑIGO ARISTA” gure Histori-zaleak “IÑIGO ARITZA” gaizki irakurria ote-dan bait diote. Gaizki irakurria ez baño, ausaz forma pareja bat dala, alegia, salbo-ta “beste” ta “bertze” bezela. Iñoiz edo iñun, ARITZA “ARISTA” esan izan al da?